

EROSKETA SEGURUAK SAREAN

GOMENDIOAK

Babesa



Kontsumobidek Interneten modu seguruan erosteko jarraibideak ematen ditu.

Zergatik?

Azken urteetan, merkataritza elektronikoa geroz eta seguruagoa bihurtu den arren, bada zenbait arrisku oraindik, eta saihestea komeni zaigu.

Internetez produktuak edo zerbitzuak berme osoz erosteak dituen abantailez baliatzeko nahitaezkoa da zenbait neurri hartzea.

Merkataritza elektronikoa seguru

Gaur egun ohikoa bihurtu da erosketak Internet bidez egitea. Jende askok erabili du inoiz merkataritza elektronikoa: supermerkatuko produktuak erosteko, objektu eskusiboak edo bildumetakoak erosteko... Teknologia berriei esker era askotako produktuak eros ditzakegu munduaren luze/zabalean, muga geografikoei aurre egin beharrik gabe.



Sarean modu seguruan erosteko, Kontsumobidek gomendatzen du:

* Ahal dela, produktuaren edota online dendaren erabiltzaileek emandako balorazioak eta iruzkinak eskuratu.

* Web orrialdea seguru den konprobatu: zerbitzari seguruetan kokaturik dagoen, konfiantza-zigilua duen edo enpresaren kokapen fisikoa aurkitzen saiatu.

* Zuhurtasunez jokatu. Kontuz ibili behar da mauka eta eskaintza sinestezinekin. Iruzurrak izan daitezke.

* Oso garrantzitsua da enpresaren pribatasun-politika zein den jakitea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen datu pertsonalen tratamendua ezagutzeko modurik onena baita.

* Produktua edo zerbitzua zer baldintzatan erosiko den jakin: ordainketa, entrega, epeak eta itzultzeak.

* Transakzioa egiteko informazioa eman bakarrik. Ez gehiago. Horrela, interesatzen ez den publizitatea jasotzea saihesten da.

* Egindako erosketarekin erlazioanaturako informazio guztia gorde: publizitate eta eskaintzak, enpresarekin trukaturako mezu elektronikoak, eskaera jaso dela adierazten duten agiriak, faktura elektronikoa eta abar.

* Enpresari buruzko datuak eta erosketari buruzko lege-zehaztapenak imprimatu eta gorde, babes-neurri gisa eta produktuaren berme-aldia bukatu arte.

Sarean egindako erosketetan, kontsumitzaileak uko egiteko eskubidea du ere.

GARRANTZITSUA

Baldintzetaz...

... informatu

Online erosketan oso garrantzitsua da produktua zer baldintzetan erosiko den ziurtatzea.

Derrigorrezkoa da enpresarentzat informazio guzti hori kontsumitzaileari ematea. Zalantzarik izatekotan, gomendagarria da enpresarekin harremanetan jartzea.

01

Ordainketa

Zer ordainketa aukera dago?

Entrega-kosturik ordaindu behar da? Hala bada, nork ordaindu behar ditu?

02

Entrega

Leku jakin batean entregatzeko baldintzarik dago?

Zer entrega-aukera dago?

03

Epea

Zer epe dago produktua entregatzeko?

Eta produktua heltzen ez bada?

Badu aseguruirik?

04

Itzultzea

Itzul daiteke produktua?

Nola itzuliko dute dirua? Zer epe dago dirua itzultzeko?

Gasturik badago, nork ordaindu behar ditu?

Nola egiaztatu web-orrialde segurua?



Segurtasun adierazleak

Merkataritza elektronikokoan modu seguruan erosteko gakoak garrantzitsuenetarikoa bat online dendaren segurtasun adierazle guztiak egiaztatzea da.

01

Begiratu batean

Zerbitzari seguru batean kokatutako web-orrialdeen URL-ak HTTPS:// batekin hasten dira. Zenbaitetan, amaierako "S" hori enpresaren ordainketa-ordian bakarrik agertzen da. Gainera, orrialde askok giltzarrapo baten irudia erakusten dute (URL-aren ondoan edo orri-oinean). Giltzarrapo irekita ageri bada esan nahi du orrialdea ez dela segurua.

Orri-oinean giltza oso bat agertzen bada ere, orrialde segurua den seinale.

02

Konfiantza-zigilua

Egiaztatu dendak konfiantza online zigilua edo antzeko beste jokabide-koderik duen, eta kontsumoko arbitraje-sistemari atxikita dagoen.


03

Enpresaren kokapena

Ez fidatu enpresa fisikoki non dagoen adierazten ez duten orrialdeez. Helbide fisikorik ageri bada, saiatu existitzen den egiaztatzen. Telefonorik ageri bada, gomendagarria da deitu eta ziurtatzea enpresa existitzen dela.

DomainTools (whois.domaintools.com) bezalako orrialdeen bidez (badira horrelako web-orrialde gehiago), domeinua nork erregistratu duen jakin daiteke, bai eta zerbitzaria non dagoen ere. Datuak arraroak edo oso eskasak badira, baliteke faltsututako produktuak saltzen dituen orrialde bat izatea.

HARREMANETARAKO

 Santiago, 11 hiribidea
01002 Vitoria-Gasteiz

 945.062.140

 kontsumobide@kontsumobide.es

Nor gara?

Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua un herritarrek kontsumoaren alorreko eskubideak bermatuta izateko politikak sortu, diseinatu eta betearazteko ardura duen Eusko Jaurilaritzako Erakunde autonomiaduna da.

informazio +

www.kontsumobide.eus



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

Eusko Jaurilaritzako Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco